

PARTE HARTZEKO DEIALDIA:

ARTE PERFORMATIBOEN PROGRAMA (APP)

1. AURKEZPENA

APP prestakuntza-programa Tabakalera - Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroak (programaren egoitza Donostian) bultzatutako ekimena da, Lekuona Fabrikarekin eta Dantzagunearekin lankidetzan (programaren egoitzak Erreenterian).

APP prestakuntza-programa gisa sortu zen, prestakuntza osagarria eskaintzeko praktika performatiboan sakondu nahi duten pertsoneri.

2. HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Prestakuntza-programaren ardatza praktika artistikoak dira, gorputza zuzenean barne hartuta.

Programa hiru ardatzetan oinarrituta eraikitzen da, non lantzen baitira praktika performatibo guztietarako funtsezko eduki erabilgarriak. Ardatzak hauek dira: berezitasunari lekua egitea; esperimentatzen ari dena entzunez praktika zeharkatzea; partekatu, ikusi eta aztertzeetik abiatuta ezagutza bateratua eraikitzea.

Hauek dira programaren helburuak:

- 1) Praktika performatiborako tresnak eskaintzea, ariketen bidez.
- 2) Parte-hartzaile bakoitzaren lan pertsonalari laguntzea bere adierazpen edo forma onenerantz.
- 3) Artisten arteko topaketa eta baterako jakintza eraikitzea bultzatzea.

Programaren egiturari, performancearen oinarriak berrikusteko tailerrak daude:

- 1) Gorputza, espazioa eta denbora.

Proposamen performatibo guztietan dauden funtsezko hiru elementuak dira. Espazioaren presentziari, iraupenari eta erabilerari buruzko ariketen bidez berrikusiko dira.

- 2) Beroketen energia eta espezifikotasuna.

Proposamen bakoitzak prestakuntza egokitua behar du. Hainbat beroketa proposatuko dira, eta haien ondorioz, gorputzaren egoera desberdinak sortuko dira, praktika bakoitzak eskatzen duenaren arabera.



3) Zeharkako proposamen metodologikoak.

Metodologia batzuk proposatuko dira, hala nola partiturak sortuz lan egitea, alter ego bat sortzea edo beste diziplina batzuetan aplikatutako metodologiaren translazioa.

Gainera, prestakuntzan sartzen dira hautatutako parte-hartzaile bakoitzarentzako berezko praktika-denborak, bai eta ikaskideen lanak partekatzeke, ikusteko eta aztertzeke denborak ere.

Osagarri gisa, programak banakako laguntza-saioak izango ditu, parte-hartzaile bakoitzaren praktikan sakontzeko.

3. HARTZAILEAK

Artista, sortzaile, dantzari, koreografo eta abarri zuzenduta dago, eta praktikan gorputza, osorik edo partzialki, integratuta egon behar da.

4. PARTE-HARTZEA ETA IZENA EMATEA

Bea Setiének hautatuko ditu tailerrerako parte-hartzaileak, gehienez ere **10 parte-hartzaile**. Deialdia **2023ko abenduaren 21tik 2024ko urtarrilaren 19ra** arte egongo da zabalik. **Otsailaren 5ean** jakinaraziko zaie izangaiei hautatuak izan diren ala ez.

5. MATRIKULA ETA EKOIZPEN-POLTSAK

Arte Performatiboen Programaren (APP) matrikularen prezioa **70 €** da.

6. LEKUA ETA IRAUPENA

Programak hiru hilabete irauten du, eta hilean bi asteburutan egiten da; hau da, sei mintegi guztira.

Ordu-tegiak: 9:30-13:30 eta 15:00-18:00

Ikus egutegiaren xehetasunak 1. eranskinean.



7. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Izena emateak berekin dakar prestakuntza-saio guztietara joateko konpromisoa eta Dantzagunea, Lekuona Fabrika eta Tabakalerako instalazioak eta ekipamenduak erabiltzeko arauak betetzeko konpromisoa onartzea. Tailerreko espazioa eta denbora helburu horretarako baino ez dira erabiliko, eta inola ere ez beste proiektu batzuetarako.

8. HIZKUNTZAK

Programaren komunikazio-hizkuntza gaztelania izango da.

9. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1. CVa eta biografia laburra.
2. Motibazio-gutun laburra.
3. Aurreko lanen dossier digitala.

Dokumentazio guztia online erantsi beharko da dokumentu bakar batean, PDF formatuan (gehienez 10 MB).

Izena emateko epea 2023ko abenduaren 21ean hasi eta 2024ko urtarrilaren 19ko 12:00etan (eguerdian) amaituko da [UTC +1]. Deialdia itxi ondoren, Beatriz Setién harremanetan jarri ahal izango da prestakuntza-programan izena eman duten pertsonekin, haiekin elkarrizketa bat edukitzeko. Deialdia 2024ko otsailaren 5ean ebatziko da, eta ebazten denetik 15 eguneko epean, Tabakaleraren web orrian eta sare sozialetan argitaratuko da. Hautagaiak astebeteko epea izango du onarpena baieztatzeko, jakinarazten denetik zenbatzen hasita.



10. DATUEN BABESA

Hautagai eta/edo parte-hartzaile guztiek eta hautatutako onuradunek bermatuko dute (i) bai eskabidea aurkeztean, (ii) bai proiektua gauzatzean oinarri hauen xede diren baliabideekin Tabakalerari ematen dioten dokumentazioa (grafikoa, testuak eta/edo ikus-entzunezkoa) jatorrizkoa dela eta ez dituela urratzen hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideak. Ondorioz, material horiek direla-eta hirugarrenek jabetza intelektualari buruzko erreklamazioak aurkezten dituztenean, Tabakaleraren, Dantzagunearen eta/edo Lekuona Fabrikaren aurrean eta/edo haren laguntzaileen aurrean erantzungo dute, eta halako kontzeptuengatik erreklamazioak aurkezteak kalte-galerak badakarzkie, haien ordaina eman beharko dizkiete entitate horiei.

Oinarri hauek onartzean, onuradunek baimena ematen diote Tabakalerari, Dantzaguneari eta/edo Lekuona Fabrikari emandako dokumentazio grafikoa, testuko eta/edo ikus-entzunezkoa erabil dezaten, edozein euskarritan, soil-soilik oinarri hauen xede diren zuzkidurak ezagutarazteko eta haiekin hornitutako proiektua gauzatzeko.

Aurreko guztiak ez ditu eragotziko egile-eskubide moralak, ez eta aipatutako testu-dokumentazioa, grafikoa eta/edo ikus-entzunezkoaren gaineko jabetza intelektualeko ondare-eskubide guztien titulartasuna ere; izan ere, eskubide horiek dagozkion onuradunenak izaten jarraituko dute.

11. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileek onartzen dute Tabakalera, Dantzagunea eta/edo Lekuona Fabrikako espazioetan hartutako irudietan agertu ahal izango direla (argazkiak, bideoak eta abar), ondoren informazioa zabaltzeko edo sustapen-jarduerak egiteko, eta erabilera hori baimentzen dute, ohorerako eskubidea urra dezaketen erabilerak izan ezik.

12. OINARRIEN ONARPENA

Parte-hartzaileek, deialdian aurkezte hutsagatik, oinarri hauek onartzen dituzte.

Info +:

pgaraikideak@tabakalera.eus

+34.943011311

www.tabakalera.eus



I. ERANSKINA

1. SAIOA: Gorputza, espazioa eta denbora.

LEKUA: Lekuona Fabrika

EGUNAK: 2024ko martxoaren 2a eta 3a

Performancearen oinarriak

Saio honetan, edozein lan performatibotarako beharrezko oinarri bat finkatu nahi da. Praktika amaigabea da; hau da, berdin da nolakoa den zure lan-esperientzia edo zer iraupena duen: praktikaren bidez gauza berriak deskubritzen dira beti.

2. SAIOA: Beroketen energia eta espezifikotasuna.

LEKUA: Lekuona Fabrika

EGUNAK: 2024ko martxoaren 16a eta 17a.

Proposamen bakoitzak prestakuntza egokitua behar du. Saio honetan sei beroketa proposatuko dira, praktika somatikoetan oinarritutako praktiken bidez.

3. SAIOA: Zeharkako proposamenak

LEKUA: Dantzagunea

EGUNAK: 2024ko apirilaren 6a eta 7a

Zeharkako proposamenen helburua da proiektuetarako baliagarriak izan daitezkeen tresna espezifikokoak ematea. Saioaren edukia aldatu egin daiteke, prozesu eta parte-hartzaile bakoitzaren beharren arabera.



4. SAIOA: Proiektuetarako trantsizioa.

LEKUA: Dantzagunea

EGUNAK: 2024ko apirilaren 27a eta 28a

Prozesuak partekatuko ditugu. Jakintza bateratua eraikitzea.

5. SAIOA: Proiektuak

LEKUA: Tabakalera

EGUNAK: 2024ko maiatzaren 11 eta 12a

Proiektuak partekatuko ditugu. Parte-hartzaileek azken saiotik lan egingo dute, eta prozesuaren bilakaera ikusiko dugu.

6. SAIOA: Proiektuak, amaiera eta ondorioak

LEKUA: Tabakalera

EGUNAK: 2024ko maiatzaren 25a eta 26a

Proiektuak partekatuko ditugu. Ez da derrigorrezkoa lana amaitzea, baina jabetu behar gara prozesuaren fase bat ixten dela. Hemendik galdera berriekin irtetea da asmoa, lan bererako edo hurrengorako.